

2025eko azaroa



Ordinalak eta banatzaileak

Ordena adierazteko erabiltzen dira zenbaki ordinalak, eta zenbaki kardinalei *-garren* atzizkia erantsiz lortzen dira: *bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren...* Banatzaileek, berriz, "zenbana?" galderari erantzuten diote, eta zenbakiei *-na* atzizkia erantsiz lortzen dira: *bana, bina, ehuna, mila bana...* Ordinalak eta banatzaileak adierazteko orduan, baina, zalantzak sortzen dira atzizkien ahoskerari eta idazkerari dagokienez.

Pasa gaitezen, bada, [Euskaltzaindiak](#) jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

ZENBAKI ORDINALAK:

- **Letraz idazten direnean, honela:**

[ZENBATGARREN?] *bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren* (**bostgarren, *boskarren*), *seigarren...*
hogeita batgarren... *ehungarren...* *milagarren...* *bi milagarren...* *milioigarren* (**milioi batgarren*)...

- **Saileko lehen kidea modu hauetara eman daiteke:**

lehen, aurrenengo, lehenengo, lehenbiziko, lehendabiziko, estreinako...

- **Zenbakiak digituz erabili nahi badira, *-garren* atzizkiaren tokian puntua jarri behar da.**

Marratxorik erabili gabe erantsi behar zaio kasu-atzizkia. Honela:

- XXI. mendea / hogeita batgarren mendea (**XXI.gn mendea, *XXIgarren mendea, *21gn. mendea*)
- 10. mendea / hamargarren mendea / X. mendea
- 2. etxea / bigarren etxea (**2.go etxea*)
- 1. solairua / lehen, lehendabiziko, lehenengo, aurrenengo... solairua
- 1. maila (**1.go maila*)
- 3.ak esan du / hirugarrenak esan du (**3.-ak esan du*)
- Bengoetxea VI.a, Alfontso II.ak, Karlos V.a...
- I. kapitulua, III. kapitulua
- 2. eta 3. ataletan / 2 eta 3. ataletan; X., XI. eta XII. mendeetan / X, XI eta XII. mendeetan

Sailkapenak eta zerrendak taula erara idaztean, **puntuz** adierazi behar da beti ordinalaren *-garren* atzizkia. Horrelakoetan, **ez da ezer jarri behar puntuaren ondoren: ez mugatzailerik eta ez marka tipografikorik.**

EGOKIA	DESEGOKIA	DESEGOKIA
1. Urlia	*1.a Urlia	*1.- Urlia
2. Sandia	*2.a Sandia	*2.- Sandia
3. Berendia	*3.a Berendia	*3.- Berendia

BANATZAILEAK:

ZENBANA? galderari erantzuten diote: bana, bina, bosna (borzna), hamarna, hamabosna (hamaborzna), ehuna, berrehuna, bostehuna, ehun eta seina, berrehun eta hamaseina, mila bana, launa mila, bostehuna mila, bosna milioi... (*batna, *bostna, *milana, *lau milana, *bost miliona...).

- Miloina egokitu zaie loterian. ***
- Milioi bana egokitu zaie loterian.
- Bost milana euroko bermea ordainduta irten ziren kalera. ***
- Bosna mila euroko bermea ordainduta irten ziren kalera.

Bina banatzailea izenaren aurretik zein atzetik eman daiteke: *bina maleta / maleta bina*.

KOMUNZTADURA:

Banak **singularreko** komunztadura du: *Liburu bana erosi dugu (*ditugu)*. Arkaitzek eta Maialenek etxe bana erosi dute (*dituzte).

Hortik gorakoek, tradizioan bestelakorik ageri bada ere, **pluralean** egiten dute komunztadura: *Launa kilo gatz eman dizkigute (*digute)*. *Bosna ontza urre hartu zituzten (*zuten)*. *Bosna mila euro eman zizkien (*zien)*.

Banatzaileek aurrekaria **plurala** behar dute: *Nik liburu bana erosi dut (> Guk liburu bana erosi dugu). *Auto banatan etorri da (> Auto banatan etorri dira). *Opari bana ekarri dizut (> Opari bana ekarri dizuet).



Ohiko erdarakadak



✗ **Horren edertasunak atentzioa deitu dit.**

✓ **Horren edertasunak atentzioa eman dit.**



✗ **Atentzioa deitu zidan haren orrazkerak.**

✓ **Atentzioa eman zidan haren orrazkerak.**



✗ **Ez da erraz Londresko metroan atentzioa deitzea.**

✓ **Ez da erraz Londresko metroan atentzioa ematea.**

*atentzioa deitu

Lagunarteko hizkeran —kalekoan, alegia—, gaztelaniazko "llamar la atencion" euskaraz "atentzioa deitu" esaten dute askok eta askok. Bada, desegokia da esapide hori. Ordain egokia **atentzioa eman** da.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



Gorasiak 12:00-etarako 9:00 egun guztietan orduak ≠ GOSARIAK EGUNERO 09:00-12:00

Zain dezagun euskara!